

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

ADINEKO PERTSONENTZAKO BALIABIDE ETA ZERBITZUEN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalaren web orrialdean, “Gobernu berria Donostiarako” izeneko atala dago. Bertan, EAJ eta PSE-EE alderdiek osatutako Udal Gobernuaren programaren azalpena dator.

Udal Gobernuak honako balore hauek azpimarratzen ditu bere programan: eraginkortasuna, argitasuna, hurbiltasuna eta portaera etikoa.

Gizarte-ekintzako atalari erreparatzen badiogu, Udal Gobernuak Donostian bizi diren adineko pertsonentzako hainbat neurri aplikatuko dituela dio (ostatua, eguneko arreta, irisgarritasuna, etab.). Neurri horien artean honako hauek daude:

- *Egokitu egingo dugu gaur egun dugun ostatuen zorroa; hain justu, kopurua, ekipamenduekin nahiz zerbitzuekin loturiko alderdiak eta minusbaliotasunaren I. maila aitortua duten pertsonentzako babesa. Espazioak, kontratuen ereduak, eta abar egokitzeko lan egingo dugu.*
- *Udalerako plazak eskuratzeko estrategiak ezarriko ditugu: horretarako, analisi kritikoa egingo dugu aurretiaz erabilitako estrategiekin lortutako emaitzen gainean.*
- *Udalean zerbitzu honi erantzuteko araudi berria ezarriko dugu. Horretarako, dagozkion profil eta zerbitzuetara egokituko dugu.*
- *Etxebizitzak trukatzeko modua bilatuko dugu, adineko pertsonen aukera izan dezaten inguru berean irisgarritasun-beharrizanei begira egokiagoak diren etxebizitzak lortzeko.*
- *Teknologi aberriez baliatuta, laguntza eta medikuntza iraunkorrek garatuko ditugu hirugarren adinekoentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat eta mendekotasuna duten pertsonentzat.*
- *65 urtetik gorako adinekoek etxebizitzetan dituzten beharizanen mapa egingo dugu.*
- *Adineko pertsonen euren etxebizitzetan ahalik eta denbora gehien egotera bideratutako plana jorratuko dugu. Hala, bide batez, enplegua sustatzeko plana sustatuko dugu.*

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

- *Adineko emakumeek bizitza sozialean parte hartzea bultzatzen duten ekintzak sustatuko dira. Helburua da emakumeen parte-hartzean dauden ezberdintasunak murriztea.*

Begienbistakoa da, agintaldi erdia bete denean, Udal Gobernuak ez dituela neurri horiek inondik ere bete.

Talde honek egindako azterketaren arabera, Udal Gobernuaren programan Gizarte-ekintza atalean jasotako neurrietatik, soilik, % 16 bete da eta beste % 29 aurreko legegintzalditik datotzen neurriak dira.

Ekaineko batzordeetan honen inguruan galdetu genion zinegotzi ordezkariari eta lanean ari direla erantzun zigun. Baina ez zuen zehaztu zergatik ez den urratsik eman neurriok aplikatzeko bidean eta zeintzuk gauzatuko dituzten datozen bi urteetan.

Bestetik, gizarte zerbitzuen zorro berriaren arabera, Donostiako Udalak defizita dauka adinekoentzako plazetan. Urtarrilean delegatuak adierazi zigun bilera batera deituko zuela honen inguruan hitz egiteko, baina ekainean gaude eta ez dugu deialdirik jaso.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala zein neurri gauzatuko dituen 2017-2019 urteetan adineko pertsonentzako baliabideak hobetzeko.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari bilera batera deitu dezala Udalbatza osatzen dugun udal guztiekin, gizarte zerbitzuen zorro berriak ezartzen dituen adinekoentzako baliabideen inguruan hitz egiteko.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia